

NORANTZA

XABIER SARASUA
TOPAGUNEAREN BOZERAMAILEA

«Euskal Herria osora
zabalduko gara»

Orain dela egun gutxi bere bigarren batzar nagusia ospatu zuen Topaguneak Durangon. Bizkaiko hiriburu honetan kultur taldeen eta herri aldizkarien arduradunak bildu ziren kide berriei ongi etorria emateko, baina baitere etorkizunerako lana antolatzeke. Jaurliaritzako azken

inkestek euskara Nafarroan eta Iparraldean arriskuan dagoela esaten dutenean, Topagunea osatzen duten kideak prest daude euskararen erabilera bul-tzateko lana ilusioz egiteko. Lehenengo pausoa Kultur Errota Iparraldera eta Nafarrora zabaltzea da.

BEGOÑA SIMÓN

Orain dela bi urte eta erdi jaio zen Topagunea. Jaio zenetik orain arte, Topaguneko kide kopurua handitu egin da. Zenbat kultur erakunde eta herri aldizkari osatzen dute Topagunea? Gaur egun 37 elkarte daude eta 31 herri aldizkari. Horietatik sei elkarte eta lau aldizkari berriak dira, Durangon eman genien ongi etorria.

Azken batzar nagusian herri aldizkariarentzat plan herri bat aurkeztu zen. Zertan datza plan hori?

1998. urtean plan estratagiko bat planteatu zen, urtean zehar adostu zen Topaguneko kide guztiekin -banan banan-, eta 1999an plan estratagiko hori martxan jartzea erabaki da. Orain, plana aurrera eramateko erre-kurtsuak optimizatu eta baitabiadeak bilatu behar dira.

Kultur Errotari dagokio, zeintzuk izan dira kultur zirkuito honen emaitzak?

Joan den azaroen jaio zen kultur zirkuito hau, eta, hori kontuan hartuta, uste dut oraindik goizegi

dela balorazio orokor bat egiteko. Halere, izugarri iruditzen zaigu sei hilabetetan laurogei ekitaldi inguru aurrera eramatea. Hilabete hauetan guztietan Kultur Errota hazi egin da eta, guk dakigunez, artistak, publikoak eta kultur elkar-teak ere

pozik daude. Gure asmoa da hemendik aurrera kultur ekitaldi hauek Iparraldera eta Nafarroara zabaltzea. Nafarroan hasi gara dagoeneko, eta Beran ekitaldi bat edo beste egin da, baina hogeii ekitaldi inguru egin nahi dugu herrialde honetan eta

beste hainbeste Iparraldean.

Bigarren batzar nagusia egin ondoren, eta erradiografia bat egin, nola dago osasunez Topagunea?

Osasunez oso ondo dagoela esango nuke. Bakarrik bi urte eta erdi ditu, baina denbora honetan Topagunea hazi egin da. Duela bi urte eta erdi baino langile gehiago du eta lan asko egin ari gara arlootan: gaztediaren arloan, hitzarmengintza arloan, herri aldizkariaren arloan, kulturgingintza arloan eta formakuntzan ere.

Gaurko egoerari halako begirada orokorra bota ondoren, nola ikusten du Topaguneko bere etorkizuna?

E: Jaso berriak ditugu Jaurliaritzak emandako euskarari buruzko azken datuak eta konklusioak argi geratu dira, EAEn euskararen egoera ez dela hain txarra, baina Iparraldean eta Nafarroan larria da. Inkesta hauetan argi ikusten da, gainera, euskararen ezagutza aldetik, duela urte batzuk baino pertsona gehiagok ezagutzen duela euskara, baina, erabilera aldetik, asko dago oraindik egiteko. Hori da justu guk lantzeko dugun esparrua, erabilera, eta lan handia daukagu aurrean. Halere, ilusioz lan egiteko prest gaude.



Mikel Mariz

ZIRTOKA



Txillardegi

Mitxelena bai

Euskaltzaleon artean, eta areago buruz buru tratatzeko aukera izan genuenon artean, inork ere ez du gaur zalantzan jartzen, batera euskararen ezagueraren mailan eta Linguistika Orokorraren alorrean, Koldo Mitxelena izan dela gu guztion maisu gaiien eta aparta.

Hots, iruditzen zaidanez (eta kezka hazkor honetan ez naiz bakarra), azkeneko bolada honetan, maizegi eta errazkiagi ari dira batzuk, berak 1968an oso zuhurki ezarritako zimenterri sendoak, behin eta berriaz aldatzen eta ahul-tzen. Are batzutan osoki ukatzen ere.

Adibide bakar bat milaren artean.

Mitxelena -Axularren bide-tik- proposatutako «gartzela» hitza orain kendu; eta hemendik aurrera «kartzela» idatzi behar dela gogorazi dide.

Erabakiaren gakoa ezagutu nahi nik, eta «Euskara Batua» Ajeak" liburura jo dut. Azalpena hau da: gartzela forma «arkaismo» omen dela (227).

Euskal joera fonologiko sendo hori «arkaiko» denik, ezin esan daitzke: ganiatu, goma(razio) baterako, Diburtzio, eta beste hamaika gaurko euskaldunen ahotan entzuten baititugu hamaika al-diz.

Mitxelena, mila argibidetan funtsatutako bide-tik, hitz haserarako /b,d,g/ hirukote ozena («ho-besten» zuela idatzi zuen (Arantzazu, 8. e): bake, dorre, gapirio, alegia; pake, torre, kapirio, bai-no hobe.

Ahalen, beraz, euskal Fonologiari eutsiko bazaio, gartzela-ri eutsi behar genioke. Edo-ta, gutxienez, Flandrian «A.B.N.» izeneko nederlanderara batuan askotan egin izan duten bezala (eta Mitxelena berak ere Arantzazuko Txostenean egin zuenaren bide-tik), forma-bitasuna onartu. Beste-la, gaizki goaz.

Aitziindariak

JOHANA·I
1 2 7 2·1 3 0 5




Ninidan amak Parisera eramán zven Iruñeko Gudvaten ihesean...



Flandriako Gerlatat partitzen ari da armada gartza...



Pilipe «Edeira»rekin esposaturik, Nafarroako eta Frantziako koroak junta tu egin ditu...



... Eta errequinak honelaxe despeditu ditu soldadruak:

FLANDRIAR URDEAK GARBITUTAKOAN, EZ URRIKAL FLANDRIAR AMUARRAINTSEI!!!

